


Ruth Wilson Gilmore akademiko eta giza eskubideen aldeko ekintzailea Critical Resistance abolizioaren aldeko erakundearen kide eta Kaliforniako Espetxeen Moratoria Proiektuaren (*Prison Moratorium Project*, ingelesez) sortzaileetako bat da. COVID-19az, "indarkeria antolatuz" eta abolizionismoaz mintzatu da.

CCOVID-19 gaitzaren hedatzeak AEBetako espetxe-egituran giltzaperatuta dauden 2,3 milioi pertsonaren bizia arriskuan jarri du. Maiatzaren 1ean, *The Marshall Project* hedabideak espetxe-ratutako 14.000 pertsonaren eta espetxe-egiturako 4.000 langileren positiboaren berri eman zuen. Diagnosi probak lortzeko zailtasunak direla eta egiazko datua askoz handiagoa izan daitekeela uste da. Horien bizitza salbatu eta birus hilgarriaren hedapena gelditu arren, pertsona multzo horren askatasuna eskatzen dute giza eskubideen aldeko hainbat ekintzailek. Ruth Wilson Gilmore abolizioaren aldeko

adituarekin harremanetan jarri gara gaiaz mintzatzeko. Lur eta Ingurumen Zientzietako irakaslea eta New York Hiriko Unibertsitateko (CUNY, ingelesez) Kultura, Politika eta Lurralde Zentroaren (*Center for Place, Culture and Politics*) zuzendaria da. *Golden gulag: Prison, Surplus, Crisis, and Opposition in Globalizing California* liburuaren egilea da ere (Urrezko gulgua: Espetxea, Superpopulazioa, Krisia eta Oposizioa Globalizatzen ari den Kalifornian). *Change Everything: Racial Capitalism and the Case for Abolition* deituko da bere hurrengo liburua (Dena aldatu: arraza-kapitalismoa eta Abolizioaren aldeko kausa).

 **AMY GOODMAN ETA JUAN GONZÁLEZ**
EUSKARATZEA | ASIER BERAMENDI

“ESPETXEEN ABOLIZIOAREN ALDE”

RUTH WILSON GILMORE



Elkarrizketa hau Democracy Now hedabideak argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

**“Abolizioa” definienezake?
Kokaenezake pandemiaren
testuinguruan?**

Abolizioaren helburua da aldatzea gauzak pentsatzeko eta egiteko modu bat. Espetxea eta zigorra ezin da gizarte, ekonomia, politika, jarrera edo pertsonaren arteko harremanetan sortzen diren edonolako arazoren konponbide gisa aurkeztu. Espetxeen abolizioak ez du presoak besterik gabe askatzea edo kaleratzea aldarrikatzen. Elkarren arteko bizimoduaren berrantolaketa proposatzen du, AEBetan eta mundu osoan jende asko egiten hasi den hausnarketa da, hain zuzen ere. Ez da amets edo ezinezko fantasia bat. Neurri praktiko eta egingarria da errealitatean, bai New Yorken, Texasen, Hegoafrikan edota beste edonon.

**Zein erantzun ematen zaie
gainontzeko herrialdeetan
krimenaren eta zigorraren inguruko
arazoei? Nola izan daiteke munduko
presoen portzentaia hain handia
AEBetan egotea?**

Interesgarria da mundu osoko lau presotatik bat AEBetan egotea, kointzidentzia hutsa bada ere. Interesgarria da, era berean, COVID-19 izurriaren ondorioz hil

diren lau pertsonatik bat estatubatuarra izatea [elkarrizketa uztaila amaieran egina da]. Kointzidentzia ala ez, gure elkar-antolatze moduan pentsarazidit, Atlantikotik Ozeano Bareraino aurki ditzakegun politika ezberdin eta anitzengan. Munduko beste tokietan gauza bat argi ikusten da: bizitzak merezi eta balio duen tokian, bizitzak balio du; Estatu, gobernu, udaletxe, justiziaren aldeko erakunde, komunitate erlijioso eta sindikatuek elkarren artean guztion bizitza hobetzeko lan egiten duten tokietan, krimena eta zigorrarekin loturiko arazoak, baita pertsonen arteko kalteak, askoz gutxiago dira. Biztanleria oso anitzta den lekuetan, berriz, AEBetan bezala, gehiago gertatzen dira. Krimena eta zigorraren erabilera askoz ohikoagoa da gizarte-ezberdintasuna handiagoa den lekuetan. Edozein kasutan, ez dago AEBen kasua bezalakorik.

**Antolatutako utzikeriaz eta
indarkeriaz hitz egiten duzu;
pandemiari estuki loturik dauden
bi gaitz direla diozu. Azaldu
zeniezaguke?**

“Gaitz” hitza erabili dut nik? Baliteke baietz, ados. Pandemiaren bi zehar-ondorio dira. Pertsona, etxe, komunitate

“ Abolizionismoaren hainbat lider etxeko indarkeria gaitzestetik abolizioa aldarrikatzera pasa da”

eta auzoek pandemiaren aurrean duten babes maila ezberdinean islatzen da utzikeria. Baita babes bilatu duten pertsoneri eman zaien erantzunean ere, New York hirian metroan bizi diren pertsona etxegabeen kasuan bezala. Ereduak zaintza eta kriminalizazioa ditu oinarri. Hau da, utzikeriaren ondorioz sortutako arazoak zigorraren bitartez konpondu nahi dira. Antolatutako utzikeria ez da soilik estatuarena, baita kapital ekonomikoarena edota ondasun higiezinaren kapitalarena ere, geroz eta luxuzko etxebizitza gehiago eta pisu eskuragarri gutxiago egiten dituzte, New Yorken eta AEB osoan gertatzen den moduan. Edo turismoaren kapitalak duen utzikeria, pertsona talde batzuk hiriko zonalde batzuetatik kanporatu eta soilik zerbitzuetako langileak badira –garbitzaileak, zaintzaileak, banatzaileak...– onartzen



baitituzte. Antolatutako utzikeria modu ugaritan gertatzen da, eta hausnarketa bat eskatzen du horrek: kapitalek, handiek, txikiek, udalenak edota estatuenak, elkarren artean nola egiten duten lan pertsona multzo zehatz batzuei atek ireki eta beste batzuei ixteko.

Espetxe egituraren erreforma eztabaidatzean, indarkeriarik gabeko delitugileei eman beharreko laguntza aipatzen da maiz, indarkeria erabili duten delitugileekin ez bezala. Hauen kasuan, zigorra oso-osorik bete beharko dutela ziurtzat hartzen da, inolako zalantzarik gabe. Zein iritzi duzu preso biolento eta ez-biolentoak bereizteko saiakeraren inguruan?

Banaketa horrek pertsona multzo zehatz batek aldatzeko gaitasunik ez duela eta, gainera, zalantzarik gabe inolaz ere ez dela aldatuko badakigula iradokitzen du. Espetxeratuak diren pertsonen gehien-goia egunen batean espetxea utzi eta aske izango dela ahazten ari gara, delitua dena-delakoa izanik ere. Beraz, pertsona multzo hauek nola jokatuak duten alde aurretik badakigula pentsatu beharrean, kanporatu dituen mundura nola itzuli

daitezkeen pentsatu behar genuke, iraganean eragindako kalteek etorkizunean ez dutela inor kaltetuko ziurtatzeaz gain. Hori aldatzeko, hain zuzen ere, abolizionistek justizia eraldatzailearen ildo jarraitzen dute. AEBetan eta mundu osoan badira abolizionismoaren hainbat lider, Mariame Kaba, Andrea Smith, Kelly Gillespie eta beste hainbat, esaterako, etxeko indarkeria gaitzestetik abolizioa aldarrikatzera pasa direnak. Indarkeriaren eta minaren aurka ari ziren borrokan eta konturatu ziren abolizioa zela zigor handien bitartez konpontzen ez diren arazoaren konponbidea.

Zure ikerketak Kaliforniako espetxeratzeetan jartzen du arreta; herrialdeko estatu handienetakoa, aberatsena eta biztanleria gehien duena da. Zer ikasi dezakegu kasu honetatik?

Bada elkarbanatu nahi nukeen ikasgai bat, bai: Kalifornia bere espetxe egitura handia are gehiago handitzeko prozesuan zegoen. Orduan sortu zen AEBetako mugimendu abolizionista garaikidea. Kaliforniako landa eta hiri eremu guztietan zehar borrokan hasi ginen, sindikatuekin, osasun zerbitzueta langileekin, komunitate erlijiosoeekin, militante

“ 2000. urterako Kaliforniako espetxeetan aurreikusten zen preso kopurura ez iristea lortu genuen. Abolizionisten lanari esker gertatu zen hori, eta lan hori hedatu egin behar dugu”

ekologistekin eta beste hainbatekin indarrak batuz; espetxea eta zigorra krimenaren konponbide zuzena dela defendatzen duen ideia desegiten hasi ginen. Ondorioz, 2000. urterako Kaliforniako espetxeetan aurreikusten zen preso kopurura ez iristea lortu genuen. Abolizionisten lanari esker gertatu zen hori, eta lan hori hedatu egin behar dugu. Los Angeleseko konderrian hainbat garaipen ikusi dugu: hamabost urteko borroka eta gero, milioi askoko aurrekontua zuten hainbat espetxeren eraikitzea bertan behera geratzea lortu dugu. Egin dezakegu, posible da. ●



KALIFORNIA dagoen North Kern State Prison. 2.694 preso dauzkate bertan.